



Asteazkena
2008-12-10

VIURTEA 1.581.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Goian, Anoetako Arraunlarien DVDa ikusten; behean, Zizurkilgo Kultur Etxean dagoen erakusketa. I. GARCIA

MENDIA ETA ARRAUNA IZAN DIRA KIROL ASTEEN ABIAPUNTU

ANOETA - ZIZURKIL Atzo hasi zituzten Kirol Asteak, Anoetako Arraunlariak eta Felix Baltistan fundazioaren erakusketarekin 7

**Ibiur bisitatu
dute bertako
urak hartuko
dituzten Udalek,
nola jardungo
duen ikusteko**

TOLOSALDEA Laster hasiko dira urez betetzen, landareak kentzez bukatzen dutenean 3



Eskualdeko Udaletako ordezkariak, atzo, Baliarraingo urtegian. UR.KONTSORZIOA

Euskal selektzioari buruzko hitzaldia, bihar

TOLOSA ESAITeko Itziar Arratibel, Aitor Esnaola eta Martin Ibarra izango dira, udaletxean 24



HITZA

ANE EZEIZABARRENA MONITOREA RUTA QUETZALEN

«Esperientzia bezala, Ruta Quetzal benetan gomendagarria da»

TOLOSA Panama eta Espainian zehar, monitorea bezala aritu da, uda honetan, Ruta Quetzalen 5

Aurreikuspenak bete ditu Titirijai Txotxongiloen Nazioarteko jaialdiak

Kultura » Gazteen epaimahaiak 'Obraztsoven onena' saioari eman dio saria; iaz baino 2.000 ikusle gutxiago izan dira.

IÑIGO TERRADILLOS

Hamar eguneko jaialdiaren ostean, txotxongiloen ikuskizunek agur esan dute, eta dagoeneko datorren urtekoari begira hasi beharra dago. Hori egin aurretik, ordea, aurtengoaren inguruan balantzea egin behar izaten dute Tolosako Ekimbede Etxekoek. Hala egin du Migel Arretxek Titirijai jaialdiaren zuzendariak eta guztia ondo atera dela azaldu du, «espero genuen bezala irten da».

Aurtengo txotxongilo taldeek maila oso handia eman dutela adierazi du Arretxek. «Guztien artean bat nabarmenezkotan, Andaluziako Buho & Maravillas taldekoen *Los músicos de Brenes* ikuskizunak erantzun oso handia izan du», dio. Berezitasun bat zuen emanaldi honek, flamenkoa eta ipuin klasikoa nahastearren berri-kuntza, hain zuzen.

Bestalde, urtero bezala, ikaste-



Aranburu jauregian Errusiara Leihoa erakusketa izan da ikusgai. 12.000 lagunek bisitatu dute. I. T.

txeetako hainbat gaztek epaimahai osatu dute, eta emanaldi guztiak ikusi ostean, saria ere eman dute. Errusiako Obraztsoven taldearen *Obraztsoven onena* izan da eurentzat ikuskizun onena, oso parekatu egon delarik *Los músicos de Brenes* ikuskizunarekin.

Guztira, 22.000 ikusle izan dira emanaldietan, eta 12.000 Aranburu jauregiko erakusketan

Euskaldunei dagokionez, Lae-nanarananja taldekoen lana nabarmendu nahi izan du Arretxek: «Izenburuarekin-eta bagenuen beldur pixka bat, baina oso lan serioa egin dute, oso freskoa, interesgarria... beraz, badute etorkizuna, ziu».

22.000 ikusle aurten

Datuei begiratuta, iazkoak baino apalagoak izan dira, pasa den urtean baino 2.000 ikusle gutxiago izan baitira, 22.000 guztira; baina erakusketa, 12.000 lagunek bisitatu dute, iaz baino 2.000 gehiagok. Titirijai jaialdiaren zuzendariaren ustez, «eguraldi txarrak eta krisiak eragin dute beheraka hori, bestela ezingo litzateke Aranburuko igogera azaldu».

Datorren urtekoaren zain egon behar orain. Jaialdi berezia izango da, TO.PIC zentroaren inaugurazioa izango baitu ardatz.

Aralarrek Tolosa UEMAn sartzea proposatuko du

Euskara » Beste hainbat herrita bezala, mozio bat aurkeztuko dute, «bertan sartzeko baldintzak betetzen dituelako».

ERREDAKZIOA

Tolosa Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatean (UEMA) sartzea proposatuko du Aralar alderdiak. Horretarako, mozio bat aurkeztuko du, Euskal Herriko beste hainbat herritan egingo duen bezala.

Tolosan bezala, Aretxabaleta, Elgeta, Deba, Zarautz eta Zumaia proposatuko ditu Aralarrek UEMAn sartzeko. Izan ere, Aralarren adierazi duen moduan, «gaur egun, horiek dira bertan sartzeko baldintzak betetzen dituzten herriak», eta era berean, Aralarrek ordezkaritza daukan udalerriak dira.

Aduna, Alegia, Altzo, Anoeta, Baliarrain, Belauntza, Elduain, Irura, Ikaztegieta, Leaburu-txarrena, Lizartza, Orendain eta Orexa dira Tolosaldean UEMAn sartuta dauden herriak.

«Turkistan ezezaguna den gaia da hemen, eta ezagutarazi nahi dut»

TARANA KARIMOVA » Azerbaijandarra

Gizartea » 'Ezagutzen al duzu Turkistan?' hitzaldia emango du Kultur Etxean, gaur, 19:00etan; gaiari buruzko lehen ekimena da.

IÑIGO TERRADILLOS

Turkistan gertuagotik ezagutzeko aukera izango da gaur, izan ere, *Ezagutzen al duzu Turkistan?* hitzaldia izango da Kultur Etxean, 19:00etatik aurrera. Tarana Karimovak (Azerbaijan, 1977) emango du.

Zer da hitzaldian azalduko duzuna?

Turkistan, berez, existitzen ez den lurraldea da. Turkiera hitz egiten dutenen lurraldea litzateke. Nire asmoa, lurralde horren inguruan hitzaldi informatibo bat egitea da, hau da, bertako historia, kultura, hizkuntza... ezagutarazteko.

Nola osatuko litzateke Turkistan? Mapan kokatu al dezakegu?

Esan bezala, Turkistan utopia moduko bat da. Turkiera hiztunak bizi diren lurraldeek osatuko luke-

te. Lurralde asko dira eta hauek nahikoa sakabanaturik daude, hori da kontua. Batetik izenak dioen bezala, Turkia dugu. Ondoren, Asia erdialdea, Tadjikistan izan ezik. Eta gero Errusiakoak diren 18 autonomia daude. Beraz, lurralde ugari.

Denen artean lurralde bat osatzea al da helburua? Zergatik?

Ia ia ezinezkoa litzateke, oso urrun baitaude eurengandik. Baina, pixkanaka loturak sortzen joatea litzateke egokiena.

Egun, beraz, ez al dute erlaziorik?

Kontu da, urtetan ezin izan dela erlaziorik izan bata bestearekin. Sobiet Batasunaren garaian, esaterako, ez zen ezer egiten hori sustatzeko, ezin zen egin. Baina Sobiet Batasuna ez dagoenetik, lurralde horietako asko independenteak dira, eta euren arteko harremana sustatzea posible izan da.

Eta ordutik, zer egin da turkieraz hitz egiten duten lurraldeetan?

Azken 10 urteetan asko aurreratu dela gai honetan esan daiteke. Gaur egun, adibidez, turkiera hiztunak bizitzen diren lurraldeetako

kideekin foroak egiten dira urtero. Horretaz gain, Turkieraren Hizkuntza Akademia dugu. Izan ere, turkiera bat bada ere, lurraldearen arabera, aldaera asko izan ditzake, eta akademia bat sortzearen beharra zegoen, hizkuntza nolabait bateratzeko. Beraz, gauzak ari dira egiten, ari da lurraldeen arteko erlazioa sustatzen.

Zein da gaurko hitzaldiaaren helburua?

Hemen, Euskal Herrian, beste hainbat lurraldetan bezala, ezezaguna den gaia da turkiera hiztunen lurraldeen artean nolabait bat egitearena. Horretatik gai honen inguruan hitz egin nahiko dute, eta gaur egun egoera zein den, historia eta kultura azalduko dut. Ea interesatzen zuden herritarrengan.

Zure ekimena izan al da?

Bai, ekimen pertsonala da. Ni Azerbaijandarra naiz, eta Hernialden bizi naiz. Elkarte kultural bat osatu nahi dut lurraldea ezagutarazteko, eta gaurko hitzaldia lehendabiziko saiakerita da. Gaur sortzen duen interesaren arabera, ekintza gehiago egingo ditugu.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Ibiur urtegia aurki hasiko da urez betetzen. Irudian, urtegioko hormatik ateratako argazkia. GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOA

Ibiur urez betetzen hastear dagoenean, udalek gertutik ezagutu ahal izan dute

Baliarrain » Gipuzkoako Ur Kontsortzioak Ibiurko urak hartuko dituzten udalek segurtasun alarmak jarri beharko dituzte.

NEREA URBIZU

Gipuzkoako Ur Kontsortzioak atzo goizean Baliarraingo urtegiaren bisita gidatu bat eskaini zuen, Ibiurko presa erakutsi eta etorkizunean bere funtzionamendua nolakoa izango den azalduz. Hasiere batean, joan den urrian zen urez betetzez hastekoa, baina abendura arte atzeratu egin da eta memento honetan, urtegia izango den zulo erraldoian dauden landareak kentzez bukatzen ari dira.

«Ibiurko presa berriari esker, Tolosaldea ur kalitate bikain batez» homituko dela adierazi zuen Iñigo Elosegi Gipuzkoako Ur Kon-

tsortzioko Zuzendari eta kudeatzaileak.

Atzo Ibiurrera Tolosaldeko alkate, zinegotzi, ordezkari eta teknikari ugari hurbildu zen Gipuzkoako Ur Kontsortzioak prestatu zuen bisita gidatua parte hartzeko.

Bisitan, parte-hartzaileek urtegi berriaren funtzionamendua gertutik ezagutu ahal izan zuten eta batik bat, Ibiurko hornikuntzak Tolosaldeko herriei ekarriko dizkien abantailak azaldu zitzaizkien.

Udaberriak aurrera ura etxean

Urtegia urez bete baino lehen gertatzen diren lanen azken pausoak ikusteaz gain, adituek segurtasun alarmei buruz hitz egin zuten. «Alarma hauek udalerrietan ezarri behar dira Ingurumen Ministerioaren protokoloa bete dadin».

Urtegiak gutxi gorabehera bilarako 60.000 pertsoneri emango

die zerbitzua. Tolosaldea Gipuzkoan urtegiarik ez duen bailara bakarra da gaur egun.

Ibiurko urtegi berriko urak Ikaztegieta, Alegiara, Altzo, Ibarra, Tolosa, Hernialde, Anoeta, Irura, Villabona, Asteasu, Zizurkil eta Adunara iritsiko dira. Dena dela, oraindik ez da ur hau hodieta-rik igaroko herri hauetaraino; «Datorren udaberriatik aurrera primerako kalitatea duen urez hornituko dira».

Ibiurko urtegiak 7,5 hektometro kuadroko ahalmena du eta Gipuzkoako urtegietatik edukiera handiena duen laugarrena da. Ura eusten duen hormak 69 metroko altuera du, edo hobeto irudikatuzko: «23 solairu dituen etxe batena», hain zuzen ere. Ingurugiro Ministerioaren inbertsioa 30 milioi euro baino gehiagokoa da. Urtegiak inguratuko duen bidea 5,7 kilometrokoa izango da.

Saneamendu proiektua onartua

Abaltzisketa » Garapen iraunkorreko sailaren oniritziarekin, herriguneko hondakin uren kolektore biltzaile bat eraikiko dute.

ERREDAKZIOA

Abaltzisketako saneamendu proiektua onartu egin dute Gaintzakoarekin batera, Gipuzkoako Foru Aldundiako Garapen Iraunkorreko sailak ezagutzera eman

duen moduan. Lanen aurrekontua 1.339,836 milioi eurokoa da eta egiteko epea zortzi hilabete dira.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Garapen Iraunkorreko Saileko titular Karlos Ormazabalaren eskariz, herenegun onartu zuen Abaltzisketa eta Gaintzako saneamendu proiektua, eta herri onurakotzat jo zuen. Eusko Jaurlaritzari obra presazkotzat deklaratzeko eskatzea ere erabaki zuen.

Abaltzisketan, hiriguneko hondakin uren kolektore biltzaile bat

eraikiko dute, Amezketako kolektorearekin bat egiten duen lekura. Proiektu horren bitartez, bi udalerrietako hondakin isurketak arroz aldatuko dira, gaur egun Ibiur errekarra isurtzen baitira. Obra hauekin Abaltzisketako urak Amezketako arrora joango dira.

Lan horiek 2004-2009ko aldirian azpiegitura hidraulikoetan inbertitzeko Gipuzkoako Ur Kontsortzioarekin izenpetutako lankidetzaren hitzarmenean aurreikusita daude.



Hesian taldeak larunbatean kontzertua emango du Gaztetxean. SAIJOA CABAÑAS

«AHTren aurka daudenen eguna» izango da larunbatean

Alegia » Gaztetxearen XXI. urteurrenaren barruan babarrun-jatea eta eskualde mailako manifestazioa izango da.

NEREA URBIZU

Alegiako Gaztetxearen XXI. urteurrena ospatzen ari dira. Gaur, esaterako zine-foruma izango da 21:30a aldera. Astebururako hainbat ekitaldi antolatuta dituzte. Etzi, gauean ping-pong txapelketa izango da. Izena han bertan eman behar da. Dena dela, egunik handiena larunbata izango da, AHTren aurkako eskualde mailako manifestazioa eta guzti. «AHTren aurka daudenen aldeko eguna» bezala bataiatu dute Gaztetxeak.

Babarrun-jatea izango da Gaztetxean 14:00ak aldera eta herriko bertsoari animatuko dute bazkaria. Otordu hau Alegiako AHTren aurkako taldearen alde izango da. Horregatik, bazkaria ordaintzearekin batera, AHTren aurkako taldeari diru laguntza ere

emango zaio. Guztia 12 euroren truke izango da. Oraindik ere txarretak lor daitezke.

Herrira triki-poteoarekin batera jaitsiko dira eta eskualde mailako manifestazioa orduan izango da, iluntze aldera. Zahagi ardoa egingo dute ondoren, eta bukatzeko, Hesian eta Disorders taldeen kontzertuak izango dira Gaztetxean.

Kontzertu biziak iluntzean

Hesian Etxarri Aranazko taldea da, azkenaldian indartsu dabilen punk taldea. 8 gaztek osatzen dute taldea eta *Herriaren Oihua* diskoa (Gor) aurkeztu zuten joan den urrian. Punk azkarraz gain, haizeak, melodia lirikoak eta mozketak gogorak nahasten dituzte.

Zaldibarren sortutako taldea da Disorders eta Hesianek baino denbora gehixeago daramatza musika munduan. Street-Punk estiloa jorratzen du, kaleko letrak jorratuz. Erritmo aldetik, hard-core azkarra egiten du taldeak eta kanta batzuetan txalaparta erritmoak tartekatzen dituzte. Euskaraz, ingelesez eta gazteleraz abesten dute.

@ Eztabaida. «Villabonan emakume batek 3.000 euro aurkitu zituen aurreko batean eta Udaltzaingora eraman zituen. Honela jabeak diru hori berreskuratu ahal izan zuen. Zurea ez den dirua aurkituko bazenu, bueltatuko al zenuke? Kopuruak baldintzatzen al du dirua itzultzeak?»

www.tolosaldeko hitza.info

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Txakurkumeak.** Gorbea arrazako txakurkumeak salgai. Oso arrazoan onekoak. Gurasoak lanean. 609 22 38 57.

Sei lagun zauritu dira, bi kamioik eta hamahiru autok talka egin ostean N-1ean

Villabona » Atzo goizean jazo zen ezbeharra, Gasteiz alderako noranzkoan; auto ilara luzeak sortu ziren.

ERREDAKZIOA

Bi kamioik eta hamahiru ibilgailuk talka egin zuten atzo goizean N-1 errepidean, Villabona parean, Gasteiz alderako noranzkoan.

Ertzaintzak jakitera eman zenez, istripu honen ondorioz sei lagun zauritu ziren eta hamar kilometroko auto ilarak egon ziren, hauek Lasarte-Oriaraino iritsi zirelarik. Halaber, norabideko bi erreial itxita egon ziren, ordu batzuk beranduago zabaldu zituztelarik.

Istripu gehiago ere izan ziren errepide honetan, Etxegaraten Idiazabal inguruan kamioi bat irauli egin zelarik eta gidaria zauritu egin zelarik.

Abendurako zine bonuak, salgai

Tolosa » Agortu arte jarriko dituzte salgai; saio guztietarako 12 euroko bonuak dira; gauzez edo arratsaldez joateko, 8koak.

ERREDAKZIOA

Leidor aretoa beteta egon da azken egunotan, Txotxongilo Jaialdiaren ikuskizunak zirela eta. Baina herenegun amaitu zen Titirijai eta, ondorioz, antzokiak berriz ere ekingo die ohiko kultur jardueren emandiei. Hala, zine saioak ere izango dira.

Iaz jarri zuen abian Tolosako Udaleko Kultura sailak, zine bonuak erosteko aukera eta, izandako emaitza positiboa ikusita, hila-betero ari dira bonu hauek eskaintzen. Abendua ez da salbuespena eta, beraz, hauek erosteko aukera zabaldu dute. Agortu bitartean izango dira erosi. Bihar, 10:00etatik 13:00etara eta

17:00etatik 19:00etara. Asteburuan, berriz, zine saioen ordutegietan.

Arduradunek jakitera eman dutenez, bonuaren ostean dutenez, zine saioetara joateko beharrezkoa izango dute leihatilatik pasa eta sarrerara jasotzea (kosturik gabekoa). «Zinek arduradunek asko eskertuko lukete, kasu hauetan, leihatilatik garaiz pasatzea azken orduko ilarak saiesteko. Leihatila berezi bat irekiko dute bonuduntzat, beharrezkoa den guztietan», azaldu dute.

Prezioei dagokionez, edozein saioetarako baliogarriak diren bonuak hartuz gero, 12 euro ordaindu beharko da. Gaukeo saioetarako, berriz, 8 euroko bonuak izango dira. Azken hauetan ikuslearen eguneko saioak sartzen dira. Arratsaldeko saioetarako bonuek ere prezio bera dute, hau da, 8 euro.

Halaber, kontuan izanik opor garaia dela, ezohiko saioak ere sartu dituzte egitarauan.

» EGITARAUA

- **Abenduak 11, bihar.** Zine forumean, *Tropical Malady*, 19:15ean eta 21:45ean.
- **Abenduak 12, etzi.** *Quemar despues de leer*, 22:30ean.
- **Abenduak 13, larunbata.** *High school musical 3* 17:00etan; *Quemar despues de leer* 19:30ean, *La buena nueva* (euskaraz) 22:30ean.
- **Abenduak 14, igandea.** *High school musical 3* 17:00etan; *La buena nueva* 19:30ean (euskaraz); *Quemar despues de leer* 22:00etan.
- **Abenduak 15, astelehena.** *Quemar despues de leer* 20:30ean (ikuslearen eguna)
- **Abenduak 18, osteguna.** Zine forumean, *14 kilometros*, 19:15ean eta 21:45ean.
- **Abenduak 19, ostirala.** *Hellboy 2*, 22:30ean.
- **Abenduak 20, larunbata.** *Solo quiero caminar* 19:30ean eta *Retorno a Brideshead* 22:30ean.
- **Abenduak 21, igandea.** *Hellboy 2*, 17:00etan; *Retorno a Brideshead* 19:30etan; *Solo quiero caminar* 22:00etan.
- **Abenduak 22, astelehena.** *Retorno a Brideshead* 20:30ean (ikuslearen eguna).
- **Abenduak 26, ostirala.** *Los niños de Huang Shi*, 22:30ean.
- **Abenduak 27, larunbata.** *Bolt*, 17:00etan; *Red de mentiras*, 19:30etan; *La boda de Rachel*, 22:30ean.
- **Abenduak 28, igandea.** *Bolt*, 17:00etan; *Los niños de Huang Shi*, 19:30etan; *Red de mentiras*, 22:00etan.
- **Abenduak 29, astelehena.** *Bolt*, 17:00etan; *La boda de Rachel*, 20:30ean (ikuslearen eguna).
- **Abenduak 30, asteartea.** *Kiriku eta basapiztiak*, 17:00etan; zine forumean, *El sentido de la vida*, 19:15ean eta 21:45ean.

Bai euskararik eginiko zozketaren zenbaki irabazleak

Euskara » Lehen saria HITZAK banatu du: 7.726. zenbakia; saria landa-etxe batean bi lagunentzako egonaldia da.

ERREDAKZIOA

Bai Euskarari Ziurtagiria duten Tolosaldeko saltoki, enpresa eta era guztietako entitateei leialtasuna eskertu nahian zozketa bat jarri zuten abian. Zozketa egin ostean, honako hauek izan dira zenbaki saridunak:

Lehen saria: 7.726 zenbakiarentza izan da. TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK banatu zuten. Saridunak Bidaide bidai agentziaren eskutik, asteburu bat bi lagunentzako landa-etxe batean irabazi du.

Bigarren saria, 12.200arentzat izan da. Mahala esnekiak produktuen, urdaiazpiko paleta bat eta gazta bat irabazi du eta zenbakia hau Mendia elektrizitateak banatu zuen. Ordezko zenbakia ere atera dute: 13.526 da.

Hirugarren saria, Aralar kirolak dandan, forro polar bat, 17.420arentzat izan da. Zenbakia Hirukide eskolapioetan banatu da.

Laugarren saria, Klisk argazki dandan, argazki sesio bat, 3.593 zenbakiarentza izan da, Laskorain ikastolak banatu zuelarik. Ordezko zenbakiak ere atera dituzte, hila-bete bateko epean saridunak aterako ez balira erabiltzeko. Saridunek Galtzaundira joan beharko dute urtarrilaren 3a baino lehen.

hitza Denda

Lavazza Espresso Point sistema liderra da Europan; sistema horrekin, munduko kafetegirik onenetako kafea bezalakoxea hartuko duzu.

Espresso Point kapsula makina eskusibo eta erabilerrazari esker, espresso italiar peto-pettoa hartu ahal izango duzu, nahi duzunean.

Horretaz gain, zazpi te mota prepara ditzakezu, baita kafeinagabea, txokolatea, cappuccino, karamilla eta salda ere, merkatuko beste sistemek baino aukera gehiago ematen baitu.

LAVAZZA
ESPRESSO POINT

Coffee Break Kit + 20 kontsumizio Opari

egiatako espresso italiarra

Prezio berezia HITZaren irakurleentzat:
135€
Instalaztea eta bidaltzea, dohainik *

Eskaera epea:
abenduaren 14a arte

Eskaerak egiteko:
943-30 43 45
Bidalketa gasturik gabe

hitza info

*EUSKALDEKO enpresako teknikariak arduratuko dira zerbitzua emateaz.

ABENDUAREN 12AN
ZARAUZKO
PUTZUZULO GAZTETXEAN
22:00ETAN

II KOPLA TXAPELKETA

"kopla batian ezin da sartu hemen sentitzen dan dena"

Maddalen Arzallus
Felix Zubia
Rikardo Gnzlz Durana
Igor Elortza
Maialen Velarde
Iker Zubeldia
Uxue Alberdi
Jokin Sorozabal
Imanol Lazkano
Arkaitz Estiballes
Joxe Juan Zbt 'Etxabe'
Jexux Mari Irazu

AGOSTI ETA BARRENA
TRIKITILARIEN KONTU
SONU BANDA

euskarastea108

E Elkarrizketa

ANE EZEIZABARRENA ▶ Monitorea Ruta Quetzalen

Gizartea » Monitore gisa aritu da Ane Ezeizabarrena tolosarra uda honetan Ruta Quetzalen, Panaman eta Espainiako hainbat lurraldetan zehar.

«Esperientzia bezala, oso gomendagarria da Ruta Quetzal egitea»

JOXEMI SAIZAR

Joan aurretik hautaketa prozesua eta egitasmoaren berri eman zigun Ezeizabarrenak. Orain bizitutako esperientzia azalduko digu.

Zer moduzko esperientzia izan da Ruta Quetzal?

Esperientzia gogorra, baina oso gustukoa izan da, oso gomendagarria abentura gogoko duenarentzat. Gauza gutxiarekin bizi daitekeela konturatzeko aproposa eta eguneroko bizitzan dauzkagun zenbait gauza baloratzen ikasteko egokia, hozkailua, dutxa ur beroarekin, ohebat...

Zer izan da gogorrena eguneroko martxan?

Edozein lekutan lo egiten ikasten duzu, eta momentu txikiena ere aprobetxatzen duzu atsedean hartzeko. Oso lo gutxi egiten genuen, 3-4 ordu egunero, 40 egunehar. Ez geneukan denborarik, talde handia izanik, 3 ordu behar izaten genituen jaiki, dendak jaso, dutxatu, gosalduta eta gauzak autobusetan sartzeko. Denbora asko dela eman arren, ez ginen geldirik egoten. Gauetan lotara begiraleak beranduago joaten ginen, hurrengo eguneroko ekintzen nondik norakoak bilera egiten genuelako, eta eguna bera baloratzen genuelako.

Espero zenuen bezalakoa izan al da? Ustekaberik izan al duzu?

Joan aurretik, ez nekien ondo zer izango zen, nahiz eta aurreko urteko begiraleekin hitz egin, barruko funtzionamendua ikusi arte ez dakizu nolakoa den. Gogorra dela esaten zuten eta gogorra da.

Egitaraua bete da, edo aldaketak izan dira?

Joan aurretik bakoitzari anuario bat eman ziguten egunehar eguneko ekintzak kontatuz. Hala ere beti daude aldaketak, ezin baita dena aurrez antolatua izan. Ruta bizirik dago' esaldia askotan erabiltzen genuen gure artean, eta gazteei ere ulertarazten saiatu behar duzu momentuero.

Zein zati gustatu zaizu gehien, Panamako edo Espainiako?

Bi zatietatik izan dituzte gauza interesgarriak eta oso politak. Panama ez ezagutzen eta lehenengo zatia izatean, indar handiagorekin bizitzen duzu. Hala ere euri eta hezetasun handiak bizitu genituen, egunero bustirik ibiltzen ginen, izerdiaz ez bazen, euriz. Espainiako zatia noiz iritsiko zain geunden, berotasun eta klima lehorrageoen bila.

Leku bereziren bat?



HITZA

Panaman, oihanean barneratu ginen oso polita izan zen, bertako ibilaldiak. Indigenekin bizitzen egon gineneko egunak ere ez ditugu ahaztuko, hain eskuzabal jakatu zuten gurekin, 100 biztanleko herrixka bat, 350 pertsona gehi-

gorekin elkarbanatzea, ez zen erraza izan beraiztat ere, kanala itsasontziz gurutzatzea San Fermín eguneko oso polita, haurrei jostailuak banatzea (jostailu bat, ilusio bat). Espainiako zatian herrera ofizial gehiago izan ditugu,

herrietako alkateak, komunitate ezberdinetako lehendakariak, errege-erreginak... Hala ere ibilaldiak interesgarriak izan dira Tus Bailara eta Río Mundo inguruak (Valladolid) eta Picos de Urbión (Soria), Zamoran piraguan ibiltzea



Panaman oihanean zehar ibili dira eta Espainian, Valladolid, Soria, Zamora eta Zaragozan izan dira. HITZA

Duero ibaian barrena eta Zaragozan. Expoa bisitatzea.

Zer moduz beste monitoreekin eta antolatzaileekin?

Oso ondo moldatu gara denak, hainbeste egun elkarrekin egotean, memento eta egoera asko elkar banatzen dituzue. Memento onetan eta gogorretan beraiekin kontatzen duzue eta lortzen duzun adiskidetasuna oso handia da. Espedizioa bukatu ondoren ere izan dugu elkarrekin egoteko egoera.

Eta gaztetxoekin?

Gaztetxoekin ere primeran, funtzio asko betetzen dituzue, beraiekin, ama, lagun baina bakoitzak eskaintzen dizuna oso berezia

Esperientzia gogorra, baina oso gustukoa izan da, batez ere abentura gogoko duenarentzat

Barruan zarenean, ahalik eta gehien bizitu nahi duzue, ez duzue aukerarik alde egiten utzi nahi

da, hainbeste herrialde ezberdinetakoak izanik.

Oihartzun handia izan al du Ruta Quetzalek Panaman eta Espainian?

Barrutik bizitzen duzunean ez duzue pertzepzio objektiborik, baina taldean nituen neska amerikarrak txunditurik zeuden Espainiko zatian jendeak zenbat ezagutzen zuten ikusita.

Gogorra izan al da?

Atsedean gutxi zeudelako gogorra da, zalantzarik gabe, baina indarrak ateratzen dituzue nonbaitetik. Behin barruan zaudenean, ahalik eta gehien bizitu nahi duzue, eta ez duzue inolako aukerarik alde egiten utzi nahi. Asko ikasten duzue besteengandik eta zure buruz ere bai, zure mugak non dauden konturatzeko zara. Amaite zenean denbora behar izan nuen nire onera etortzeko eta eguneroko martxara egokitzeko, leku guztietan lo hartzen nuen, eta oso nekaturik nengoen.

Errepikatuko al zenuke?

Aukera izanez gero, gustura egingo nuke berriro! Datorren urteko Ruta Txilera doa, eta Euskal Herrietik ere pasako da.

Zer esango zenioke parte hartu nahi duen begirale edo gaztetxo bati?

Esperientzia bezala oso gomendagarria dela, bizitzan behin gutxienez egitekoa. Oso lagun eta adiskide onak egiten dira bertan, eta jende asko ezagutzen duzue. Bidaiatzeko aukera ematen duzue eta zure kabuz joanez gero bisitatuko ez zenituzkeen makina bat lekutan egoteko aukera ere bai. Datorren urteko baldintzak eta epeak jada zintzilikatuta daude interneten Rutaren orri ofizialean (www.rutaquetzal.com), eta animatzeko esan denei!



Itziar Arratibel, mahaian erdian, eta ESAITeko beste arduradun batzuk, beste agerraldi batean. I. TERRADILLOS

Euskal selekzioa hizpide, Ezker Abertzaleak antolatutako hitzaldian

Tolosa » ESAITeko Itziar Arratibel, Aitor Esnaola eta Martin Ibarra izango dira bihar, 20:00etan udeletzeko pleno aretoan.

ERREDAKZIOA

Selekzio bat, nazio bat, Euskal Herri bat izeneko hitzaldia izango da bihar osteguna, 20:00etan, udaletxeko pleno aretoan. Tolosako Ezker Abertzaleak antolatutako ekitaldia da, izan ere azken hilabetean «gaurkotasanari lotutako gaien inguruko hausnarketa bultzatu ditu; Inaxio Agirrearen *Euskal Herri euskalduna* eta Nekane Juradoren *Nor gelditzen da nire diruarekin? Kapitalismoaren gezurra, zehazki*.

Biharkoan, hortaz, euskal selekzioa izango dute hizpide eta ESAITeko Itziar Arratibel, Aitor Esnaola eta Martin Ibarra izango dira hizlariak. «Niri dagokidanez, ESAITen izenean, orokorrean

futbolarien selekzioaren inguruan zein akordioetara iritsi ginen, zergatik hautsi duten, jokalariek eta kirolariek zer eskatzen duten... azalduko dut. Herri kirolen inguruan hitz egiteko Aitor Esnaola egongo da eta bestetik, pilotaren inguruan ere hitz egingo dugu. Badago eta pilota konfederazio antzeko bat, zazpi probintziak biltzen dituena, eta bertan Martin Ibarra dagoenez, horretaz ere hitz egingo dugu», argitu du Itziar Arratibelek.

Politika kontuak

ESAITeko kideak, hortaz, 165 euskal futbolari, hilaren 23ko Iranen kontrako partidaren harira, Euskal Herriko Selektzioa eta ez Euskadiko Selektzioa bezala agertzearen alde plazaratutako agiriaren inguruko hainbat argibide eman go du: «Euskadi edo Euskal Herria erabiltzeko garaian politika dago tartean. Ez dute hartutako akordioa bete nahi eta horrek zeinen eskuetan gauden uzten du agerian. Kirolariek, euren kabuz, erabaki

zuten agiria ateratzea, euren ustez izenaren aldatetaren erabakia aitziakia besterik ez da eta, atzean mami gehiago dago eta argitu egin beharko lukete zergatik ez dituzten bete nahi lehenago hitzartutako akordio horiek. Horrexegatik erabaki dute jokalariek planto egitea; egoera honekin ez dute jarraitu nahi. Gurekin behin baino gehiagotan hautsi dute hartutako hitza, baina jokalariek ez».

«Bide bateratua»

Arratibelek argitu duenez, ESAITen lana «kirolarien nahia gizarteratzea» besterik ez da, hau da «kirolarien nahia bistarazi nahi dugu».

Izan ere, «legeak kirolariek egiten dituzte, baina, tamalez, arazoa da politikariek kirolarien eta euren buruen borondatea errespetatu beharko luketela, baina ez dutela egiten. Jaurlaritzako edo dena delakoaren kirola sailak errespetatu beharko luke, baina ez dute egiten. Bidea bateratua izan behar du», gaineratu du.

Beste garaipen bat lortu du Lauburu taldeak

Ibarra » 3-0 irabazi zuen areto futbol taldeak, larunbatean Belabietan gasteiztarren kontra jokatutako partidari.

Unai Labaca, David Prados eta Ion Ander Karrera izan ziren zelaieratutako lehen bost jokalariek. Loitzun Sanz, Victor Silva, Aitzol Oyarbide eta Ruben Etxart ere izan ziren zelaiean.

ERREDAKZIOA

Partida ederra izan zen larunbatekoa. Belabieta kiroldegian zuen hitzordua Ibarra Lauburu areto futbol taldeak Carnicerias Saenz gasteiztarren aurka eta 3-0 irabaztea lortu zuten.

Igor Zabalo, Ion Garmendia,

Hiru gol eta kanporaketa bat
Gasteizko jokalariek gazteak dira eta oso ondo aritu ziren, nahiz eta ez zuten golik egitea lortu. Ibartarrek, ordea, hiru gol sartu zituzten; Unai Labaca, David Prados eta Ion Ander Karrerarekin, hain zuzen. David Prados, gainera, kanporatua izan zen.

Ate Irekien Astea, hilak 13tik aurrera

Ibarra » Datorren larunbatetik, hilak 13tik, 21era arte Ate Irekien Astea izango dute Belabieta kiroldegian.

ERREDAKZIOA

Ibarrako Belabieta kiroldegian Kirol Astea dela eta Ate Irekien Astea izango dute hilaren 13tik hasi eta 21 bitarte. Kiroldegiko instalazioak, hortaz, libreki erabili ahal izango

dira egun horietan zehar. Eraberean, Kirol Astearen baitan eskalada eta mahai-tenis ikastaroak izango dira, besteren artean.

Eskalada tailerra LHko lehen mailetik hasi eta seigarren maila bitarteko gazteei zuzenduta dago eta hilaren 15, 17 eta 19an eskainiko dute 17:30ean Belabieta kiroldegian bertan.

Mahai-tenisari dagokionez tailerra ere gaztetxoei zuzendutakoa da eta hilaren 13an izango da 15:00etan Belabietan.

Laburrak

'Aljeriako Gudua' gaur, 21:00etan Gaztetxean

IBARRA » *Aljeriako Gudua* filma eskainiko dute gaur, Ibarrako Auto-eskola Antikapitalistako kideek. 21:00etan proiektatuko dute herriko Gaztetxean. *Aljeriako Gudua* lana 1965. urtean estreinatutako Gillo Pontecorvo zuzendari italiarrak eta bertan Aljeriak askatasuna lortzeko 1954. urtean hasitako eta 1962. urtean bukatutako guduen gora behar dira nagusi.

Silo-bolen plastiko bilketa egingo dute

ELDUAIN » Silo-bolak egiteko erabiltzen diren plastikoen bilketa egingo dute Elduainen hilaren 18an. Hau dela eta, bolak hilaren 17 baino lehen eraman behar dira Artaxo baserrira. Zerbitzua debaldekoa izango da, izan ere Mendi Nekazaritza Landa Garapenerako Elkartearekin elkarlanean egindako egitasmoa da plastiko hauek eragiten duten kaltea gutxitzeko.

Eskertza

MARI CRUZ PEÑAGARIKANO OLAIZOLA

(Purpurinetako jendearentzat Maikux erizaina, emagina, musularietxo goxoa eskainitakoa, eta ama eta amona maitagarria)



Bere familiak saminean lagun izandako guztiei eskerrik beroena ematen die.

ZARAUTZ
2008ko
abenduaren 10a

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko HITZA.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Anoetako Gaztetxeak bertso afaria antolatu du larunbaterako

Anoeta » Jexux Mari Irazu eta Jokin Uranga bertsolariak ariko dira; 10. urteurrenaren harira izango da.

ERREDAKZIOA

Maiatzean dagoeneko 10 urte izango dira Anoetako gazteek Gaztetxea sortu zutenetik. Orduetik hainbat ekintza burutu dituzte, beti ere euren Gaztetxea bizirik mantentze arren, eta horien artean datorren larunbaterako, hilak 13, antolatu duten bertso afaria.

Bertan ariko diren bertsolariak Jexux Mari Irazu larrauldarra eta Jokin Uranga izango dira. Afarria 21:00etan izango da. Afarirako txartelak Itzuli tabernan daude salgai, langabetu eta pentsioduentzako 12 eurotan eta langileentzako 15 eurotan. Izen emateko azken eguna bihar izango da.

Urteurrenako elastiko eta jertseen aurkezpena

Afariaren aurretik, 19:00etan, Gaztetxearen 10. urteurrenko elastiko eta jertseen aurkezpena egingo dute. Anoetako Gazte Asanbladak gaztetxea ezagutu eta afarira etortzeko gonbidapena luzatu du. Bestalde, 10. urteurrena dela-eta hemendik aurrera hainbat ekintza burutuko dituztela zehaztu dute.

Erakusketarekin eta arraun taldearen emanaldiarekin hasi dituzte Kirol Asteak

Kirolak » Anoetako Arraunlariak herrikideekin solasean eta Felix Baltistan fundazioak erakusketa inauguratu du Zizurkilen.

ERREDAKZIOA

Anoetan eta Zizurkilen atzo hasi ziren Kirol Asteen ekitaldiekin. Anoetan eratu berri den arraun taldearen hitzaldia izan zen eta Zizurkilen Felix Baltistan fundazioaren aurkezpena.

Anoetako Arraunlariak taldeko kideek nola eratu ziren eta lehengo urtean Tolosako San Joan jaiei estropadan egindakoa azaldu zuten. Hain justu, estropada horretako DVDa erakutsi zuten.

Zizurkilen ikusgai dago Felix Baltistan fundazioaren erakusketa Atxulondon. Bertan, fundazioak Pakistanen martxan dituen gidari eskola eta nekazaritza proiektuen inguruko argazkiak eta panelak ikusi daude.

» GAUR

Anoeta

■ **19:00.** Mendi Diaporama: *Alpimambo espedizioa: Trangoko Dorreak-Pakistan*. Kattu, Fonta eta Gorki zizurkildarrek emango dute.



Arraunlari taldekoen DVDa ikusi zuten Anoetako udal arretan. I. GARCIA



Atxulondon Felix Baltistan fundazioaren proiektuen berri jaso daiteke. I. GARCIA

Argazki eskaria Urte Zaharreko 25. kroseko webgune bereziarent

ERREDAKZIOA

Aurten ere, aurreko urteetan bezala, Urte Zahar Egunean Villabona eta Zizurkil herrietatik igaroko den lasterketa antolatu dute Zumbeltz eta Urkamendi elkarteek. Baina aurteko urtea berezia da, 25. urteurrena ospatuko baitute eta ekintza berezien artean webgune sortzeko asmoa dute. Bertan informazio interesgarria sartzen hasi nahi dute.

Informazio horren baitan urtero sortutako argazkiak egongo lirateke edonork ikusi edo jaitsi ahal izateko. Horrela, antolatzaileek aurreko urteetako argazkiak lortu nahi dituzte, bai paperean edo digitalean. Argazkiak bidali nahi duenak hiru aukera ditu: Villabonako 95 posta kutxatilara, (nondik datorren ongi jarriaz gero bueltatzeko) edo jonliz@telefonica.net helbide elektronikora bidaliz, edota Zumbeltz eta Urkamendi elkartean bertan utziz.

T Telefonoak Larrialdia. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbola: 943 006900

Amarozko dispen: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdia)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosalde bus: 943 650621

Leitzaran autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Iurramendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320

Alkoholiko anonimoak: 943 248474

Hernandez berriz Espainiako txapeldun

Halterofilia » Danena-Olaederrako Iker Hernandez pultsulariak 17 urtez azpiko Espainiako Txapelketa lortu du berriro.

ERREDAKZIOA

Iker Hernandez Danena-Olaederra taldeko pultsulariak 17 urtez azpiko Espainiako txapelketa irabazi berri du A Coruña. 62 kiloko mailan lehiatu zen eta bigarren urtez jarraituz lortu du txapeldun izatea. Txapelketa horretan, 50 kiloko mailan Artiz Eriz seigarren postuan gelditu zen eta 56 kiloko mailan Adrian Sasiain bederatzigarren gelditu zen.

Txapelketa horrez gain, Danena-Olaederrako pultsulariek beste lehiaketa batean parte hartu berri dute, Gipuzkoako Klubaren arteko txapelketan hain zuzen. Florian Simon Memorialia izan zen eta Zarautzen jokatu zuten. Espainiako Klubaren Arteko Txapelketaren faserako baliozgarria da. Bertan Da-



Florian Simon Memorialean parte hartu zuten pultsulariak eta prestatzaileak. HITZA

nena-Olaederra Halterofia Taldeko pultsulariek oso emaitza onak lortu zituzten.

Danena A taldeak lortu zuen lehenengo postua. Talde horretan parte hartu zuten Ekaitz Kortajarena, Jon Sasiain, Mikel Quintana,

Iker Hernandez, Patxi Hernandez, Francisco Gonzalez eta Javier Gonzalez pultsulariek. Bigarren postua Danena B-k lortu zuen eta talde horretan Angel Martin, Adrian Sasiain, Koldo Saracho, Iñaki Zubelzu, Alain Moleda eta

Asier Gallego pultsulariek parte hartu zuten. Hirugarren postua Irungo Algitrans taldeak lortu zuen. Lehiaketa horretan bertan, banakako sailkapen orokorrean Ekaitz Kortajarenak lortu zuen lehenengo postua.



4°
2°

GOIZA
ARRATS.
BEROENA
HOTZENA

EURIA
ESTALIA
6°
0°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tososaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tososaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tososaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tososaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tososaldeko hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tososaldeko hitza.info.
Ibarralea: 687 410 032. ibarralea@tososaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tososaldeko hitza.info.
Leitzailea: 687 410 118. leitzailea@tososaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaileko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altxo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Hitzaldiak

■ **Tolosa.** Alkoholarek eragina giza gorputzean hitzaldia emango du Asuncion klinikako barne medikuntza zerbitzuko arduradun batek Kultur Etxean 20:00etan.

Zinema

■ **Alegia.** Zine kluba 21:30a aldera Gaztetxean, bere XXI. Urteurrenean.

Erakusketak

■ **Zizurkil.** Felix Iñurategi Fundazioko argazki erakusketak Atxulondo kultur etxean. Inaugurazioa, asteartean 19:00etan.

Deialdiak

■ **Berastegi.** Bigarren eskuko azokarako materiala (arropa, jostailuak, liburuak, CDak...) Erretoretxera eraman beharko dira 16:30etik 18:00etara. Lortzen den dirua helburu solidario baterako izango da.

■ **Elduain.** Udalak herriko silo bolen plastiko guztien bilketa puntua, Artatxu baserriaren ondoan finkatuta dauka eta hilaren 17an bertara eraman beharko dira bolak lotuta, haizeak bola hauek altxa ez ditzan.

■ **Ibarra.** Ibarrik Misio Taldeak Ekuador, Eritrea, Honduras eta Indiaren alde egingo duen Merkatu Txikirako material parrokiako lokaletara eraman daiteke 17:00etatik 20:00etara. Dirua, Kutxako 2101004313 0011656899 kontuan ingresatu daiteke.

■ **Tolosa.** Tolosaldea Garatzenen Immigrazio Sailak literatur lehiaketa antolatuta du *Emakumeen kontribuzioa migrazio prozesuetan* gaiari buruz, euskaraz eta gaztelaniaz, 16 urteko behar koentzat eta gora koentzat. Lanak Tolosaldea Garatzenen (San Esteban, Tolosa) entregatu behar dira.

■ **Tolosa.** Hezitzaileek asko egin dezakete ikastaroa antolatuta du Udaleko Euskara Zerbitzuak hezitzaileak motibatu eta beraien jardueretan euskararen erabilera sustatu dezaten, abenduaren 22an eta 23an, 09:30etik 12:30era. Izen ematea, Euskara Zerbitzuan egin daiteke.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Etxebeste, J.M. Gernikako arbola, 3. 943 651040.
■ **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneren eta iritzien erantzunkizunik.

Antolatzaileek «balorazio positiboa» egin dute Txuletarek Festaren inguruan; Zerkausira bertaratu diren %80a eskualdekoak bertakoak dira; gainontzekoak, Euskal Herria eta Espainiakoak, batik bat.

2.000 kilo txuleta 2.500 ahotan



Zerkausia beteta egon zen otorduro; bertaratuak oso gustura geratu ziren, antolatzaileek argitu dutenez. ASIER IMAZ

ERREDAKZIOA

Txuleta usaina omen zegoen pasa den asteburuan Tolosan. Batzuk horrekin geratu ziren, usainarekin. Beste batzuek berriz, 2.500 pertsona baino gehiago hain zuzen ere, dastatzeko aukera ere izan zuten. 2.000 kilo txuleta inguru dastatu zituzten orotara Tolosako Txuletoia Jaiaren III edizioan.

Ostiralean hasi eta astelehenera bitarte Zerkausia erretegi erraldoi batean bilakatu zen eta Tolosa Gourmetetik eta Udaletik «oso gustura» azaldu dira, egin berri duten balorazioan.

Eman dituzten datuen arabera,

Txuletarek Festa parte hartu dutenen %80a eskualdekoak bertakoak izan dira. Gainontzekoak, Gipuzkoatik, Bizkaitik, Arabatik eta Nafarroatik etorri dira, baita Katalunia, Cadiz, Madril eta Murtziatik ere. Askok gainera, lehen aldiz bisitatu dute Tolosa. Beste batzuk, berriz, aisirako aprobetxatu dute aukera hau.

Jatetxe ugari ekimenarekin bat eginez

Txuletarek Festa hirugarren aldiz antolatu dute aurten Carnicas Go-yak ekarri duen haragiarekin. Bertan aritu dira lanean Casa Juliane-ko Matias Gorrotxategi, Casa Ni-

colaseko Pedro Ruiz, Orue erretegi-ko Javier Hualde eta Burruntzi erretegi-ko Juanjo Pascual. Hauek guztien aurrean egin zuten lana.

Hauetaz gain herriko hainbat jatetxe ere festaren parte izan ziren, Zerkausian eman zuten menu berbera eman baitzuten euren jangeltan. Hain zuzen ere, Astelena, Botarri, Beti Alai eta Bide Bide jatetxeak eta Usabal eta Uzturre sagardotegiak dira.

Bisitariak ere gustura

Eta zer jan zuten bada bertan izan zirenek? Ba 40 euroren truke menu gozo-gozoa: piperrak, ur-

daiazpikoa, kukuluak, zainzuriak, gazta eta Tolosako jaki tipikoak. Hauen guztien gainetik, asteburuko protagonista, txuleta.

Divinus Catering enpresa arduratu zen zerbitzatzeko lanaz; afariak zerbitzatu zituzten ostiralean eta larunbatean, 20:00etatik 22:00etara eta bazkariak, berri, larunbatean, igandean eta astelehenean, 13:30etik 15:00etara.

Arduradunek argitu dutenez, bisitariak ere «oso gustura» geratu dira Tolosan jaso duten janarekin, giroarekin eta zerbitzuarekin. Balorazio baikor hau aintzat hartuz, laugarren edizioa dagoeneko martxan izango dute...

A Agurrak

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak